



BETIRAKO ZU MAITTIA

<i>AGIAN</i>	<i>2</i>
<i>ARO BERRIA.....</i>	<i>3</i>
<i>HERRI KANTA.....</i>	<i>4</i>
<i>BIDEA DA.....</i>	<i>5</i>
<i>ZER DAKIZU?.....</i>	<i>6</i>
<i>NON ZAUDE?.....</i>	<i>7</i>
<i>HONETARAKO SEGIDU?.....</i>	<i>8</i>
<i>MURGILDU ZIZEN</i>	<i>9</i>
<i>KOPLA BERRIAK TXIMISTI</i>	
<i>JARRIAK.....</i>	<i>10</i>
<i>KOPLA BERRIAK AINGERURI</i>	
<i>JARRIAK.....</i>	<i>12</i>
<i>URDINARI PARATUTAK.....</i>	<i>14</i>
<i>URDINAK PARATUAK</i>	<i>16</i>
<i>KARMELERI MAITASUNEZ.....</i>	<i>17</i>
<i>ZU</i>	<i>18</i>

AGIAN

(Jon 2006)

*Agian nahiago zenukeen
gurea politagoa izatea,
erromantikoagoa, agian.
Hasiera pelikulen antzera
Deklarazioaz gain..*

*Agian nahiago zenukeen
Bizitza osoagoa izatea
Semealabez betea, agian.
Inguruan dantza ta zarataka
Erneatu arte.*

*Agian nahiago zenukeen
Osasuntsuago bizitzea
Alkoholik eta gabe, agian.
Aspertze luze horiek gabe
Etxean bete-bete.
Agian bai, baina
Hauxe dun geurea
Eta halaxe maite zaitut, maite.*

ARO BERRIA

(Jon 2012)

*Ez zaudenean ez naiz gauza
Pentsatzeko ere zer naizen
Ez zaudenean ez dakit
Biharko zer izango den
Eta ez zaude, ez zaude, ez zaude
Sekulan ere nirekin
Eta ez zaude, ez zaude ez
Ez zaude gehiago
Ze ote izango
Zahar/berri aro.*

HERRI KANTA

(Herrikoaia)

*Nire maittia ez egon sustoz
Biziko gera munduan gustoz (bis)*

*Palazio bat eginen dizut
Sekalez edo lastoz. (bis)*

*Balkonak ere basa-lizarrez
Teilatua belar-igarrez. (bis)*

*Hala goizean enkargatu da
Baionako Piarrez. (bis)*

BIDEA DA

(Jon 2012)

*Herritik hirira
Eta berriz herrira
Bizitzaren ildoan
Blai ongarritu duzu
Horra hor atzeko
Ugari, zabal, aberats
Betirako zure uzta
Herritik hirira
Eta berriz herrira
Bidean utzi duzun
Arraztoa da baina
Sakona iraunkorra
Itzulezina
Ez da non zauden
Nondik nora
Ibili zaren
Zer gertatu den
Hemen zauden
Joan zaren*

ZER DAKIZU?

(Jon 2012)

*Joan zara eta ezin izan dut
Zer sentitu duzun jakin.*

*Zenekizun zer zetorkizun
Edo nahiago zenuen
Horrela ez jarraitzea.*

*Ez dizut ez ezer aurpegiratzen
Berdin berdin maitatzen zaittut*

Eta ez nintzen galdetzen atrebitzen

*Kontsolamendu bakarra da
Zaindu zaittutala zaindu.*

NON ZAUDE? (Tom Waits-en airearekin)

(Jon 2012)

*Non zaude oin maittia non ote zauden
Ez zaittut ikusten ene aldamenen
Zerrikittu guztiak bete bai hemen
Ta ez zaitut aurkitzen nik nahi nukenez.*

*Non dira zure ahotsa, azala zaindu dittugunak
Non dago gure ulertze ixila
Elkar hitz egin bai baina entzun, ordea, ezinezkoa
zu ez zaudela gogorra da gero bizimodua*

*Alperrik dira diren egunerokoak
Alperrikagoak oroitzapenak
Ez zaude eta horrek ez dauka bueltarik
Ta begira zazu zuren ingurunean*

*Hemen gaudenok zaitugu ikusten
Sentitzen alboan maitatzen hor goian
Hauxe duzu bada besterik ez daukat
Nahiko zenuen zuretzako kanta
Non zaude...*

HONETARAKO SEGIDU?

(Jon 2012)

*Zer da txarra, zer da ona
Zer da gaixotasuna?*

*Zer da ezin egona
Ezin eutsi izana*

*Zer da normalitatea
Zer egunerokotasuna*

*Urte bat luzez
Egon naiz pentsamendu
Hauetan murgilduta.*

*Ez dadila ez
amaitu inoiz
kalbarixu hau sekulan.*

MURGILDU ZINEN

(Eneritz 2012)

*Mari Carmen murgildu zinen
gure Bilboko kaleetan
ta gero Jon ezagutu
zorioneko uneetan
Lekunberrira joanda
garai bateko ametsetan
zure lagun maiteekin
garbiketan, berriketan...
batera ibili gara
bazkari ta mendietan
lagunarteko parranda
ta osteko mozkorretan
beti egon zara gurekin
momenturik onenetan
ta baita hemendik aurrera
biziko ditugunetan.*

KOPLA BERRIAK TXIMISTI JARRIAK

(Marikarmen 2008)

*Badaukat nik lagun bat
Tximist deritxona
Mendira igotzea
Gustatzen zaiona
Aspaldian aordea
Etxezale fina
Gutziz izorratuta
Ei dauka belauna.*

*Bere irrifarrea
Eta umore ona
Alaitu egiten du
Lagunartekoa
Zuzendari bezala
Kantatzerakoan
Bere lagun duela
Makila berria.*

*Txokoan aritzen da
Bazkari lanetan
Bere lagun Aingeruk
Behar duenean
Baina denok dakigu
Pintxe beharrean
Bera dela onena
Sukalde honetan.*

*Tximist lagunarekin
Denok gaude zordun
Bere umorearekin
Ez dago egun ilun
Une hau ospatzeko
Topa egin dezagun
“lodi” ta “txapneka”
abestu ditzagun.*

*“Bailearen bertsioak” doinuarekin
(Zazpi kalen 2008-12-14)*

KOPLA BERRIAK AINGERURI JARRIAK

(Marikarmen 2009)

*Aingeru ugari
Ei daude zeruan
Lasai bizi direnak
Patzara ederrean
Guek ere Aingeru bat
Dugu gure artean
Baina pipermin hutsa
Saltsa guztietan*

*Jubilauen opari
Makila izan ohi da
Lanari uztean
Aginte saria
Baina gure Aingerutxok
Ez du horren falta
Aspalditik baitauka
Aginte makila.*

*Jubilatu den arren
Oso gazte dago
Mendian ibiltzean
Gu beti atzerago
Orain bici behar du
Pixkat lasaiago
Abe Marin ondoan
Zoriontsuago*

*Gure laguna dugu
Hainbat urte luces
Aldamenean beti
Bere alaitasunez
Mesede_egiteko prest
Egun edo gauez
Eskerrik asko Aingeru
Koadrilaren partez.*

*“Triste bizi naiz eta” airearekin
(Oletan 2009-03-28)*

URDINARI PARATUAK

(Marikiarmen 2010)

*Artzanegi kalean
Hogeita zortzian
Barbakoa ei dago
Zortzi t'erdietan
Zer ospatzen ote da
Auzoak gladezka
Urdinak hogeit urte
Hiru bider du ta.*

*Ukenduak egiten
Maixu fina dugu
Matxusek esan arren
“ezin naiz fidatu”
edozein gaitzerako
beti du aholku
zipituz o melisaz
guztiak sendatu*

*Belase prestatzen da
Mendira joateko
Baita ere txuletilak
Guztiz kixkaltzeko
Baina lagun bikaina
Afalosterako
Zorionak Urdina
Urte askotarako*

URDINAK PARATUTAK

(Urdina 2013)

*Gure Karmen omenduko degu
jaiotako herrian
fisikoki nahiz eta ez izan
gogoan zaude dantzaz.
Ez pentsa hemen gaudenon artean
ahaztuko zaitugunik
urte luzea izanda ere
zaude bizi-bizirik.
Bizkai ta Lekunberriko lagun ezin aurkit
inun zure algara,
faltan da zure ironi fina eta begira gozo
bazter hoietan.
Zauden tokian zihurrik egon, gure artean
dago Jon, ongi zainduta.
Menditan han-hemenka argazki hartuta
nahiz eta ez ikusi zu zaude ta.*

Doinua: (molinero.....)

KARMELERI BIHOTZEZ

(Bertsolaria 2013)

*Elgoibarren sortu zinen
ta hon(er)a etorri gera
elkarrekin izandako
bizipenak oroitzera.
Gaztetan Bilbora joana
ikasketak burutzera;
neska kementsua beti
aintzindarien antzera. (1)
Bertan bizi izan zinen,
alaitasunez, gainera
han ezagutu zenuen
lagunarekin batera.
Gazterik utzi gintuzun,
segiko dugu aurrera,
ta gure bihotz barruan
Karmele biziko zera !! .*

Doinua: “habanera”

*Bera joan da
Zu beragan gorde
Zaitzan.*

Omar Kahyyamek idatzia
Jorge Oteizak bildua
Niretzako gidaria